

EKINTZA GARRANTZITSUENAK

Gure helburu edo xede nagusia, dirua lortzea izango litzateke zaborrontziak salduz, horrez gain, birziklatzea hirugarren munduari lagunduz. Hasiera batean lortutako diruaren gutxieneko %5a bidaliko genuke baina mozkinak igo ala diruaren portzentajea igotzen joango da. Plastikoa lortzeko enprekin aurre ikusitako kontratua, hiru hilabeteko bildu eta behar ez duten plastikoa ematea da. Banatzaileekin aldiz aurrekontratu bat dugu, saldutako zaborrontzien arabera. Herrialdeko banatzaile bat daukagu azpikontratatuta, gure zaborrontziak internetez erosten duen erosleari momentuan etxera iritsi ahal izateko.

Lehenbizi makina alokatu, ondoren Tolosa edo Tolosaldeako plastikoa bilduko genuke eraldatu eta gure zaborrontzia sortzeko. Tratu hau muxu truk izango da, enpresa eta ikastola ezberdinekin aurre kontratua betez, hiru hilabetez behin bildutako plastikoa guri emanaz. Plastikoa bila gu joango ginateke gure auto propioan. Hori egin ondoren, plastikoa klasifikatuko genuke eta azkenik moldeekin ontzia egin eta margotu.

Produktua egoera desegokian iristen den momentuan gure helbide elektronikora mezu bat bidali edo telefonoz kontakta dezakezu.